


*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Sipuzkoa*

**2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007**

**Akta zenbakia:** 6/2007**Bilera data:** 2007-05-4**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 16:30-17:15**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 6/2007**Fecha:** 4-05-2007**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 16:30 – 17:15**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero  
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Angeles Iriondo Mugica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo Gonzalez Moran  
 Consuelo Frutos Gonzalez  
 Jose Guirado Novo  
 M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz  
 Jose Maria Mugica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M. Asuncion Guerra Alonso

**Reunidos:****Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero  
 José Luis Aramendi Goikoetxea  
 José Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Ángeles Iriondo Múgica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo González Morán  
 Consuelo Frutos González  
 José Guirado Novo  
 M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz  
 José María Múgica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso

**Bitarteko idazkaria:****Nagore Alkorta Elorza****Secretaria interina:****Nagore Alkorta Elorza****Aztergaiak:**

**Lehenengoa eta bakarra.-**Urnietako hiri antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onespena.

**Orden del día:**

**Primero y único.-** Aprobación inicial del Plan de Ordenación Urbana de Urnieta.



## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

**Lehenengoa eta bakarra.-Urnietako hiri antolamenduko Plan Orokorren hasierako onespena.** **Primero y único.- Aprobación INICIAL del Plan de Ordenación Urbana de Urnieta.**

Florentino Ugalde Atxaga alkate-presidenteak hartu du hitza, eta adierazi du Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko testua 2006ko ekainaren 30ean onartutako irizpide eta konponbide orokorrak kontuan hartuz idatzi dela. Halaber, irizpide jasagarriak hartu dira kontuan. Gero, hasierako onespena emateko bozkatuko den dokumentuaren alderdi esanguratsuenak azaldu ditu.

Toma la palabra el alcalde-presidente, Florentino Ugalde Atxaga, para señalar que el texto del Plan general de Ordenación Urbana ha sido elaborado teniendo en cuenta los criterios y soluciones generales aprobadas el 30 de junio de 2006. Asimismo han sido tenidos en cuenta criterios sostenibles. A continuación pasa a explicar los aspectos más relevantes del documento que se somete a la aprobación inicial:

**a.- BIZITEGI EREMUA.-** Gehienez 1.124 etxebizitza, eta horietatik 824 babes publikokoak. Denak, **5 eremutan** banatuta egongo dira:

- 1.- AZKARATE
- 2.- BABILONIA
- 3.- TRANKATX
- 4.- ERMOTEGI
- 5.- MAÑERO

**a. -AREA RESIDENCIAL.-** Con un total 1124 viviendas, de las cuales 824 son de protección pública. Todas ellas divididas en **5 áreas:**

- 1.- AZKARATE
- 2.- BABILONIA
- 3.- TRANKATX
- 4.- ERMOTEGI
- 5.- MAÑERO

**b.- ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK.-** Honako hauek dira nabarmentzekoak.

- 1.- **Kirol** jardueretarako eta oro har **aisialdirako** guneak (Azkarate eta Trankatx)
- 2.- **Kultur** jardueretarako eta **ikaskuntzarako** guneak (Azkarate, Babilonia eta Mikaela Enea)
- 3.- Zerbitzu **sozial** eta **sanitarioak**

**b.- SERVICIOS Y EQUIPAMIENTOS .-**Entre los mismos destacan :

- 1.- Espacios destinados a actividades **deportivas** y al **ocio** en general (Azcarate y Trankatx)
- 2.- Espacios destinados a actividades **culturales** y **docentes** ( Azcarate, Babilonia y Mikaela Enea)
- 3.-Servicios **sociales** y **sanitarios**

**c.- JARDUERA EKONOMIKOAK**

- 3 eremutan daude banatuta:
- 1.- MIRABALLES
  - 2.- URKAIN BERRI
  - 3.- IRURAIN

**c- ACTIVIDADES ECONÓMICAS**

- Las mismas están repartidas en **3 áreas**
- 1.- MIRAVALLS
  - 2.- URKAIN BERRI
  - 3.- IRURAIN

*Hermitako Udala**Lepuzkoa**Ayuntamiento de Hermita*

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

Jarduera horiek zerbitzuak eta Estas actividades posibilitarán dar los ekipamenduak eskaintzeko modua egingo dute. servicios y equipamientos.

### d.- SISTEMA OROKORRAK ETA TOKIKOAK

Bi hauek dira garrantzitsuenak: barne zirkulazioa birmoldatzea eta San Juan plaza oinezkoentzako bihurtzea.

Guztira, 35 dira hirigintzako esku-hartzeak eta sistema orokorrak.

Florentino Ugaldek bere azalpena amaitu du esanez hiri lurzoruan 2 esku-hartze aurreikusten dituztela etxebizitzetarako, eta 3 lurzoru urbanizagarrian.

PSE-PSOeko ordezkari Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta adierazi du beren botoa arrazoitu aurretik nahi luketela idazkariak lege aldetik argibide batzuk ematea; izan ere, ulertzen ez duten zerbait ikusi dute, eta litekeena da legez kanpokoa izatea. Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanari buruz ari da hain zuzen, eta azalpen hau eman du:

“Lurzoruaren Legeak honela dio, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruzko I. sekzioan, gutxienez aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko 62.1. artikulua b atalean:

b.- *Atariko txosten ingurumen inpaktua betetzen duela ziurtatzen duen memoria. Halaber, onartutako antolamendua garapen iraunkorraren printzipioaren arabera arrazoitu beharko du, kontuan hartuz plan horretako aurreikuspenak betetzeko lurzoruak ahalmenik ba ote duen kontuan hartuz.*

Aurkeztu ziguten lehenengo Aurrerapenean, ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio bateratuaren prozedura aipatzen zen. Honela

### d.- SISTEMAS GENERALES Y LOCALES

Se contemplan como puntos más importantes la remodelación del tráfico interno por una parte y por la otra la peatonalización de la Plaza San Juan.

En total los ámbitos de intervención urbanística y sistemas generales son 35.

Finaliza la exposición el alcalde Florentino Ugalde señalando que se prevén 2 actuaciones de uso residencial en suelo urbano y 3 actuaciones de uso residencial en suelo urbanizable.

Toma la palabra el representante del PSE-PSOE Hermenegildo González Morán señalando que antes de argumentar el voto quieren que la secretaria les apercibiera de ley porque han visto algo que entienden que puede ser presuntamente ilegal. El asunto trata del Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental que pasa a exponer a continuación:

“Dentro de la Ley del Suelo, en su Sección I. Plan General de Ordenación Urbana y en su artículo 62.1 referente a la Documentación mínima a presentar dice en su apartado “b” lo siguiente:

b.- *Memoria justificativa de cumplimiento del informe preliminar de impacto ambiental, que así mismo deberá motivar la ordenación adoptada desde el principio de desarrollo sostenible, considerando la capacidad de acogida de los suelos para el cumplimiento de las previsiones contenidas en el plan.*

En el primer Avance que se nos presentó se hacía referencia al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, decía



## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

zioen hitzez hitz:

*"Ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratua egiteko prozedurari buruzko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua indarrean sartu denez, beharrezkoa da Aurrerapen dokumentuan bertan ebaluazio bateratuaren arauzko azterlana eranstea. Dokumentu hori ezinbestean sartu beharrak Plangintzaren Aurrerapena idazteko pasatu den denbora pasatzea eta egin den lana egitea ekarri du, udalerraren egoerari erantzuteko egokienak diren plangintza alternatiboak aztertzeko helburu bakarrarekin".*

Urnietako hiri antolamenduko planaren bigarren dokumentu horretan ere aipatzen da ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlana. Honela dio:

*"2005eko apirilean, Urnietako Plangintzako Arau Subsidiarioen aurrerapen dokumentua aurkeztu zen, eta dokumentu horri ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio bateratua erantsi zitzaion. Ingurumen inpaktuaren prozedurari buruzko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak ezarritako eskakizunari erantzunez".*

Aurrerago, proiektuaren barruan, memoriaren A dokumentuan, honela dio hitzez hitz:

*"...halaber, ingurumen inpaktuari buruzko atariko txostenaren esanbidezko justifikazioa erantsi da".*

Hori esanda, garbi dago legez beharrezkoa dela aurrerapen dokumentuarekin batera ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazio bateratuaren dokumentua aurkeztea. Ingurumen Inpaktuari buruzko Legeak inpaktuak hiri

textualmente:

*"Con motivo de la entrada en vigor del Decreto 183/2003 de 22 de Julio por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, se hace necesario incorporar al propio documento de Avance el preceptivo de estudio de evaluación conjunta. La necesidad de incluir dicho documento ha propiciado que la redacción del Avance de Planeamiento haya precisado del tiempo y el trabajo empleados, con el único objetivo de procurar las alternativas de Planeamiento más adecuadas para dar respuesta a la situación del municipio".*

En este segundo Documento del Plan de Ordenación urbana de Urnieta, También hace referencia al estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, dice así:

*"Con fecha abril de 2005 se presenta el documento de avance de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Urnieta, incorporando al documento el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, en respuesta al requerimiento estipulado en el Decreto 183/2003 de 22 de Julio por el que se regula el procedimiento de evaluación de impacto ambiental".*

Más adelante dentro del Contenido del proyecto, en el documento A de la Memoria pone textualmente:

*".....se incorpora igualmente la justificación expresa del informe preliminar de impacto ambiental".*

Bien, dicho esto, nos encontramos con que, es necesario por Ley, presentar junto al documento de avance el necesario documento de evaluación conjunta de impacto ambiental. La ley de impacto ambiental obliga a evaluar los

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Euzkera*

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

plangintzako lehenengo faseetatik ebaluatzeraz behartzen du, hau da, aurrerapen dokumentua idazten denetik. Gainera, plangintza orokorraren hainbat alternatiba egitera behartzen du, ebaluatzeraz eta inpaktu txikiena zeinek izango duela ikusteko. Lehen adierazitako Lurzoruaren Legeak berak (ekainaren 30eko 2/2006), 87. artikuluko 3. puntuan, IV. Kapituluko lehenengo sekzioan, 103. orrialdean, dokumentu hori jendaurrera erakustera behartzen ditu udala eta erredakzio taldea. Urnietaren kasuan, nahiz eta erredakzio taldeak plan orokorreko dokumentu berria aipatzen duen, inoiz ez zen hala egin, eta jakina, ez zitzaion herritarrei aurkeztu erakusketa publikoan; beraz, gure ustez, dokumentu berriak ez du legea bete; hori hala balitz, horrekin aurrera eginez gero prebarikazio delitua egiteko arriskua eduki genezake (hau da, administrazio prozesu bat aurrera eramatea, jakinik indarrean dagoen lege bat urratzen ari direla).


Beraz, eskatu du Udaleko idazkariak lege argibideak eman diezazkiela udalbatzako kide guztiei, Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Bateratuaren Azterlanik ez edukitzearen ondorioen inguruan.

Nagore Alkorta idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du Aurrerapenari buruzko tramitazioa aurreko idazkariak eraman zuela, eta berak espediente osoa aztertu duela. Idazkariak adierazi du eginda dagoela, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko Batzarrak aztertu duela atariko txostena. Adierazi du behin betiko txostena Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin-behinean onartu eta gero egiten dela. Nabarmendu du atariko txostena Idazkaritzako dokumentuen artean dagoela. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko Batzordeak egin behar du ingurumen inpaktuari buruzko behin betiko

impactos desde las primeras fases de la planificación urbana, es decir, desde que se redacta el documento de avance. Además obliga a realizar diferentes alternativas de plan general para evaluarlas y ver cual es la menos impactante. La propia Ley del suelo antes referida (Ley 2/2006 de 30 de junio), en su artículo 87 punto 3, dentro de la sección primera del capítulo IV, página 103, obliga al ayuntamiento y al equipo de redacción a presentar a exposición pública dicho documento. En el caso de Urnieta, aunque el equipo de redacción lo cita en el nuevo documento de plan general, en ningún momento fue desarrollado como tal y, por supuesto, no fue presentado a la población en exposición pública, de manera que entendemos que el nuevo documento no se ajusta a la legalidad, si esto es así, de seguir con él adelante estaríamos en peligro de incurrir en un presunto delito de prevaricación (es decir, seguir adelante con un proceso administrativo a sabiendas de que esté incumple una ley en vigor).

Por lo tanto solicita que la Secretaría del Ayuntamiento les aperciba de Ley a todos los Corporativos con relación a la falta de Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

Toma la palabra la secretaria Nagore Alkorta para señalar que la tramitación relativa al Avance la llevó a cabo la anterior secretaria y que ella ha examinado todo el expediente. Señala la secretaria que el Estudio de Impacto Ambiental sí está hecho y el mismo ha sido sometido a Informe Preliminar por parte de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco. Señala que posteriormente el informe definitivo se realiza una vez haya sido aprobado provisionalmente el Plan General de Ordenación Urbana. Recalca que el Informe preliminar está entre los documentos obrantes en Secretaría. Es la Comisión de Ordenación del Territorio del

*Sinopsis*

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

txostena, baina udalbatzarrean plan orokorra behin-behinean onartu eta gero.

Florentino Ugalde alkateak hartu du hitza, eta adierazi du banatutako aurrerapeneko dokumentazioan bi testuak daudela, planoekin batera.

EBko ordezkari Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du dokumentu bat sartu duela, eta idazkariak badakiela horren berri, eta hor honako hau adierazi duela Urnietako hiri antolamenduaren hasierako onarpenari dagokionez: "Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Hirigintzaren Lege berriarekin (ekainaren 30eko 2/2006), Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak onartzeko hainbat dokumentu izan eta eztabaidatu behar dira, hala nola, memoria, aldaketa proposamenak eta planoak, eta tartean, herritarrek Plan Orokorrean izango duten parte-hartzearen programa. Lurzoruaren Legeak 108. artikuluan jasotzen duenez. Adierazi du ez dela ezer asmatu behar, baizik eta Legea irakurri eta behar bezala aplikatu. Eta Legeak ematen dituen eta Urnietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpena emateko kontuan hartu ez diren tresna horiek hain zuzen herritarrek parte hartzeko programan daude, eta kasu honetan ez dago halakorik. Ez baitu balio haren ordez jendaurrean erakustea. Haatik, herritarrek parte hartzeko programa bat exijitzen da, esaterako auzoak, taldeak eta bestelakoak nola informatuko diren azalduko duena. Izan ere, honela diote 108. artikuluko horretako a, b eta c atalek:

a) atala: jendearentzako saio irekiak, aurrerapena azaltzeko; batez ere, hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta espedientea tramitatzean aurkeztutako alternatibak azaltzeko.

país Vasco la encargada de elaborar el informe definitivo de Impacto Ambiental, pero todo ello una vez que haya sido aprobado provisionalmente el Plan general en Pleno.

Toma la palabra el alcalde Florentino Ugalde para señalar que en la documentación del avance que les ha sido entregada están los dos textos junto con los planos.

Toma la palabra el representante de IU-EB Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que ha dado entrada a un documento del que tiene conocimiento la secretaria en la que manifiesta, en relación a la Aprobación inicial de Ordenación Urbana de Urnieta, los siguiente: "Con la nueva Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco ( Ley 2 /2006 de 30 de junio) una aprobación inicial del Plan General de Ordenación Urbana, exige disponer y debatir una documentación como Memoria, propuestas de Modificación, Planos...pero entre ella el Programa de participación Ciudadana en el Plan general, recogido en el artículo 108 de la Ley del Suelo. Señala que no hace falta ningún invento, sino leerse la Ley y aplicarla adecuadamente. Y entre los instrumentos que dota la Ley y que no se han tenido en cuenta para esta Aprobación inicial del Plan General de Ordenación urbana de Urnieta, está precisamente el Programa de participación ciudadana que aquí no existe. Pues no vale con sustituirla por exposiciones públicas, sino que exige un Programa de Participación ciudadana, en el que se defina por ejemplo el cómo se va a informar por barrios, colectivos, etc... Ya que los apartados a b. c del mencionado artículo 108 expone:

- apartado a): sesiones abiertas al público explicativas del contenido del avance, en especial las decisiones estratégicas de construcción de la ciudad y las posibles alternativas presentadas en la tramitación del

*Urmielako Udala**Ayuntamiento de Urmiel**Eguzkoa*

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

- b atala): herri galdeketa egiteko aukera, toki araubideari buruzko oinarritzko legediaren arabera. baldin eta planeko alderdiren batek herritarren artean gatazka larria sortu badu.

- c) atala: dibulgazioko materiala; hirigintzarako legez eskatzen diren dokumentuekin batera prestatu beharko da, zabaltzea eta ulertzea errazteko.

Amaitzeko, legea bete dadila eskatzen dut. Eta arauzko instrumentu bat betetzen ez denez, udalbatzar hau inpugnatzen dut”.

Adierazi du 2006ko ekainaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea, irailean aplikatutakoa, etenaldi bat ekarri duela, eta erredakzio taldeak gelditu egin behar izan duela. Horren erakusgarri da hirurehundik gora etxebizitza ez zetozela bat gaur egungo Lurzoruaren Legearekin, eta artikulua horrek behartu egiten ditu arau subsidiario guztiak. aurrerapen guztien aldaketak eta prozesu guztia. Hitz batean esanda, halakorik ez dago. Gero, Juan M. Tomasena Lurzoruaren Legeko 108 eta 109. artikulua aipatu ditu. Hain zuzen, Plangintzarako Aholku Kontseilu bat proposatzen du. Adierazi du ez duela balio herritarrek parte hartzean alde daudela dokumentu publikoa batzuk egin dituztelako, UTB erabiltzen dutelako, etab., baizik eta parte-hartzea finkatua dagoela, erabat aztertua, eta gainera zertan datzan ere jasota dagoela. Eta hori ez da hemen gertatzen. Juan M. Tomasena ustez. Amaitu du esanez bere ustez udalbatzar honek ez duela legezotasunik, eta, hala izanik, inpugnatu egiten duela.

expediente.

- apartado b): posibilidad de celebrar consulta popular municipal, según la regulación establecida en la legislación básica de régimen local, en caso de graves controversias ciudadanas sobre alguno de los aspectos incluidos en el plan.

- apartado c): material divulgativo, que deberá prepararse junto con los documentos legalmente exigidos para los instrumentos urbanísticos, al objeto de facilitar su difusión y comprensión.

Para finalizar manifiesto que se cumpla la Ley. Y como un instrumento preceptivo no se cumple impugna este Pleno”

Señala que la Ley de suelo y urbanismo del País Vasco, de 30 de junio de 2006, que tuvo su aplicación en septiembre ha supuesto un periodo de impas en el cual el equipo redactor ha tenido que adaptarse. Prueba de ello es que hay trescientos y pico viviendas que no encajaban dentro de la aplicación de la ley del suelo actual y en la que este artículo que obliga a todas las normas subsidiarias, a todas las modificaciones a todos los avances y a todo el proceso. En una palabra eso no existe. Posteriormente Juan Mª Tomasena hacer referencia a los artículo 108 y 109 de la Ley del suelo, que hablan del Consejo Asesor del Planeamiento...Plantea que no vale decir que estamos por la participación ciudadana porque elaboramos unos documentos públicos, utilizamos UTB...sino que la participación es una cosa que está consolidada y totalmente analizada y además textualizada en qué consiste. Cosa que aquí no ocurre según Juan Mª Tomasena concluyendo que él cree que este Pleno carece de legalidad y como tal es por lo que impugna.




## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

Nagore Alkorta idazkariak hartu du hitza, eta Juan M. Tomasenak herritarren parte-hartzeari buruz azaldutakoari erantzun dio. Idazkariak adierazi du, nahiz eta ez dagoen 108. artikulua adierazten duen herritarrek parte hartzeko programarik, Juan M. Tomasenaren interpretazioa baizik ez dela herritarren parte-hartzea jendaurreko erakusketen bazterketa aldebakarreko gisa jotzea. Nabarmendu du Idazkaritzaren ustez herritarrek parte hartzeko mekanismoak direla jendaurrean erakustea, teknikariak azalpenak ematea, jendeak aurrerapena ikusi eta kontsultatzeko aukera izatea. Juan M. Tomasenak adierazitako Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluari dagokionez, idazkariak esan du planak behin betiko onartzeko eskumena duten udalerrietan bakarrik dela organo hori nahitaezkoa. Eta Urnietak ez du halako eskumenik, 7.000 biztanle baino gutxiagoko herria baita. Idazkariak nabarmendu du Urnietaren kasuan gisa horretako organoak sortzea ez dela geroagokoa ez eta arauzkoa ere, EBko ordezkariak aditzera eman nahi izan duenez, baizik eta aukerakoa. Amaitzeko, idazkariak Juan M. Tomasenari galdetu dio zeri buruz ari zen zehazki udalbatzarra inpugnatzen duela esan duenean, zer inpugnatu nahi duen, edo gai zerrenda, edo deialdia, edo hartuko den akordioa. Juan M. Tomasenak erantzun dio udalbatzarra bera inpugnatzen duela, arauzko elementu bat, nola baita herritarren parte-hartzea, ez delako bete, Legearen 108. artikulua araberakoa. Juan M. Tomasenak uste du hartzen den erabakiak ez duela balioko, legeak ezartzen duen arauzko baldintza bat betetzen ez delako. Gero, idazkariak galdetu dio hartzen den akordioa inpugnatu nahi ote duen.

Toma la palabra la secretaria Nagore Alkorta respondiendo a las cuestiones planteadas por Juan M<sup>a</sup> Tomasena en relación a la participación ciudadana. Señala la secretaria que si bien el programa de participación ciudadana al que hace referencia el artículo 108 no existe como tal documento la exclusión unilateral de las exposiciones públicas como instrumentos de participación ciudadana realizada por Juan M<sup>a</sup> Tomasena es tan sólo su interpretación. Recalca que desde Secretaria si se entiende que las exposiciones públicas, las explicaciones de los técnicos, el hecho de que la gente haya podido ver y consultar el Avance son mecanismos de participación ciudadana. En cuanto al Consejo Asesor de Planeamiento municipal mencionado por Juan M<sup>a</sup> Tomasena responde la secretaria señalando que la existencia de ese órgano tan sólo es obligatoria en los municipios que tienen competencia para la aprobación definitiva de los planes, cosa que en Urnieta no ocurre al ser un municipio que tiene menos de 7.000 habitantes. Recalca la secretaria que en el caso de Urnieta la creación de este tipo de órganos no es posterior ni preceptivo como lo ha querido dar a entender el representante de IU- sino optativo. Para finalizar la secretaria le pregunta a Juan M<sup>a</sup> Tomasena a qué se refiere concretamente cuando hace alusión a la impugnación del pleno, qué es lo que quiere impugnar, o el orden del día, o la convocatoria o el acuerdo que se tomará. Le contesta Juan M<sup>a</sup> Tomasena señalando que lo que se impugna es en sí el Pleno porque hay un elemento preceptivo que se denomina participación ciudadana que no se cumple según lo señalado en el artículo 108 de la Ley. Considera Juan M<sup>a</sup> Tomasena que no tiene validez la decisión que se adopte por incumplir algo preceptivo que marca la Ley. A continuación le pregunta la secretaria si lo que quiere impugnar es el acuerdo que se adopte.



*Urrietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Urnieta*

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

Gero, talde politiko bakoitzak emango duen botoari buruzko bere arrazoibidea azaldu du.

A continuación cada grupo político pasa a exponer su posicionamiento en cuanto al voto a emitir:

PSE-PSOeko ordezkariak testu hau irakurri du:

El representante del PSE-PSOE pasa a dar lectura al siguiente texto:

·"Urrietako Hiri Antolamendurako Planaren Hasierako Onarpenari dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

“ En cuanto a la Aprobación Inicial del Plan de Ordenación Urbana de Urnieta tenemos que manifestar lo siguiente:

**LEHENENGOA.-** Gure argudioaren zati bat gure taldeak 2006ko ekainaren 30eko udalbatzarrean adierazitakoan oinarritzen da. Oso luzea denez, ez dugu hemen errepikatuko, baina bilkura hartako akta erantsi dugu.

**PRIMERO.-** Parte de nuestra argumentación se basa en lo manifestado por nuestro Grupo en el Pleno celebrado el día 30 de junio de 2006 y que por su extensión no vamos a repetir aquí, no obstante figura en el Acta de aquella sesión.

**BIGARRENA.-** Dokumentuak, abian jarri zenetik gaur arte, aldaketa handiak izan ditu. Hain zuzen, alkateak esan zuen hemen, azken Hirigintza Batzordean, Lurzoruaren Legea onartu denez eta hori dokumentu berriari gehitu zaionez nabarmen aldatu dela dokumentua.

**SEGUNDO.-** Decir que desde su inicio hasta el día de hoy el Documento ha sufrido importantes modificaciones. De hecho, lo dijo aquí el Alcalde, en la última Comisión de Urbanismo, que debido a la aprobación de la Ley del Suelo y a la incorporación de la misma al nuevo Documento, éste ha tenido un cambio sustancial.

**HIRUGARRENA.-** Ikusi ahal izan dugunez, dokumentu berria ez da, ezta hurrik eman ere, aurkeztutako lehenengo aurrerapenaren eta udalbatzarrean aintzat hartu ziren iradokizunen batura. Beraz, dokumentu berria da, eta jendaurrean erakutsi beharko litzateke, iradokizunak egiteko.

**TERCERO.-** Hemos podido comprobar que este nuevo Documento no es, ni mucho menos, la suma del primer Avance presentado más las sugerencias estimadas en su día en el Pleno. Por lo tanto, es un Documento nuevo, por lo tanto debería de exponerse al público para la presentación de sus correspondientes sugerencias.

**LAUGARRENA.-** Berriz ere diogu dokumentu hori ez dela ez herritarren parte-hartzearen isla, ez parte-hartze kolektiboarena, ez eta parte-hartze politikoarena ere. Ikus aintzat hartu diren eta aintzat hartu ez diren iradokizunak bozkatzean izandako emaitzak.

**CUARTO.-** Seguimos denunciando que este Documento no es reflejo, ni de la participación ciudadana, ni de la participación colectiva, ni tampoco de la participación política, véase el resultado en las votaciones a las estimaciones y desestimaciones de las sugerencias.

**BOSGARRENA.-** Dokumentu berriak, besteak beste, honela dio: "...dokumentu berria aurkeztu da orain, hasierako onespina emateko; teknikariek egindako txostenak kontuan hartuz

**QUINTO.-** En el nuevo Documento se cita entre otras cosas: "...que se presenta ahora el documento para su aprobación inicial que incorpora las precisiones, modificaciones y



## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

egoki ikusitako zehaztapenak, aldaketak eta zuzenketak jasotzen ditu dokumentu horrek, eta, zehazki, jendaurreko erakusketa aldian aurkeztu diren alegazioak aintzat hartu edo ez hartu izanaren ondokoa da". Beste behin, agerian gelditu da aldaketa nabarmena dela (erredaktoreek beraiek ere esaten dute), eta, bestalde, aurkeztutako alegazioak aintzat hartzearen edo ez hartzearen baitan oinarritu dela batez ere. Eta hori ez da horrela izan, herritarrek, kolektiboak eta talde politikoez ez baitzituzten alegazioak aurkeztu, iradokizunak baizik, eta, gure ustez, oso desberdina da.

**SEIGARRENA.-** Beste behin salatzen dugu gure taldeak erredakzio taldearen aldetik prozesu osoan izan duen tratua. Gogoratu nahi dugu guk ordezkatzeko ditugun herritarrei egiten zela laidoa, eta ez guri. Zergak eta minutak ordaintzen dituzten herritarrei.

**ZAZPIGARRENA.-** Ez gaude ados aurkeztutako dokumentu osoarekin. Horregatik, garaiz eta forman, alegazioak aurkeztu ditugu. Baina inola ere ez zaigu ondo iruditzen noiz aurkeztu den, udal eta foru hauteskundeak baino 20 egun lehenago. Alegazioetarako epean udalbatza aldatuko da. Ez da kasualitatea, normalean gauzak egiteko duzuen modua da. Beharbada horrela oharkabeago pasatuko da alegazioak aurkezteko orduan, baina uste osoa dugu urnietarrek ez dutela arreta galduko. Jarduteko modu horrek pentsarazten digu ez dela onartu nahi inoren parte-hartzea; azkenean beti interes alderdizaleek nagusitu behar dute. Horren erakusgarri da agintzen duen taldeak ez duela fisik ere aldatu bere hasierako jarrera, eta, gainera, beti hartu dira aintzat haren iradokizunak eta ideiak; aldiz, gainerako herritarrei, kolektiboek eta talde politikoei ia ez zaie iradokizun bat ere kontuan hartu.

*rectificaciones que se considera oportunas a partir de los informes emitidos por los técnicos correspondientes y en concreto, las que son producto de la estimación o no de las alegaciones presentadas en el período de exposición pública".* Una vez más queda de manifiesto que el documento ha tenido un importante cambio sustancial (de hecho lo dicen hasta los propios redactores), y por otra parte se habla que sobre todo se ha basado en la estimación o no de las alegaciones presentadas, cuestión esta que no ha sido así, ya que lo presentado por los ciudadanos, colectivos y Grupos políticos no fueron alegaciones, sino sugerencias que a nuestro entender es muy diferente.

**SEXTO.-** Volvemos a denunciar una vez más el mal trato recibido hacia nuestro Grupo Municipal durante todo este proceso, por parte del grupo redactor. Recordar que la ofensa se la hacen a los ciudadanos a quienes representamos y no a nosotros. Ciudadanos que pagan sus impuestos y también sus minutas.

**SÉPTIMO.-** No estamos de acuerdo con la totalidad del Documento presentado, por ello presentaremos en tiempo y forma las correspondientes Alegaciones. Pero desde luego lo que no compartimos para nada es el momento de su presentación, a 20 días de unas Elecciones Municipales y Forales, dentro del plazo de Alegaciones se procederá al cambio de Corporación. No es casualidad, es vuestra manera de hacer las cosas habitualmente. Tal vez así pase más desapercibido a la hora de presentar las Alegaciones, confiamos en que los urnietarras no se van a despistar. Esta manera de actuar nos lleva a pensar que no se quiere aceptar las participación de nadie, al final tienen que imperar siempre los intereses partidistas, prueba de ello es que el partido gobernante no ha movido ni un ápice su postura inicial y además se le han considerado siempre sus sugerencias y sus ideas, sin embargo al resto de ciudadanos, de

Urnietako Udala



Ayuntamiento de Urnieta

Suzkoa

## 2007KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 4 DE MAYO DE 2007

Dokumentu berri hau ez da ez plurala eta ez pare-hartzailea.

**ZORTZIGARRENA.-** Behin eta berriz esan izan da, eta udalbatzako hainbat kidek esan dute, ez hartzeko hurrengo udalbatza nolabait hipotekatu edo baldintzatuko duen akordiorik. Gure ikuspegitik, Urnietako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartzeko proposamen horrek nabarmen egiten du hori. Udalbatza berriak eramane beharko luke aurrera Hasierako Onespena, logika politikoz eta urnietarren hobe beharrez.

